



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 23
Urtea/Año 2014
Maiatza/Mayo

Gogoratu:

Maiatzaren 15a San Isidro eguna da, zaindariaren jaia Getxon aurten; beraz, ez dugu eskolarik izango. 16an ere ez, zubia izango baita.

Dagoeneko musika-tresna lantzen ari diren ikasle ofizialek matrikula egin dezakete maiatzaren 9ra arte.

1. Mailako 3. Modulua eta 2. Mailako 0 Modulua egiten ari direnek (datorren urterako musika-tresna aukeratu behar dutenek), maiatzaren 8tik 14ra arte izango dute epea.

2014/15 ikasturterako onarpen berrientzako izena emateko epea, maiatzaren 15a eta 31 bitartean izango da zabalik.

TUTORETZEN GARRANTZIA MUSIKA ESKOLAN

Zuetako gehienok, irakasgai bat baino gehiagotan zaudete matrikulatuta gurekin: askok musika-tresna edo kantua ikasten duzue espezialitate gisa eta, gainera, musika-lengoaia edo tresna-talderen bat. Seguru la guztiok irakasle bat baino gehiago duzuela Musika Eskolan.

Zuen musika-prestakuntza gurekin koherentea izan dadila nahi dugu: irakasgai batetan ikasketakoa baliozkoa izan eta beste batetan ikasitakoarekin erlazionatuta egon dadila, musikaren ezaguerara modu oso eta globalizatuagoan hurbil zaitezten.

Aurkezten dizkizuegun hezkuntz edukieren egokitzapen eta bateragarritasun hobereana lortzeko, irakasleok talde-lana egiten dugu. Dakizuenez, zuetako bakoltzak erreferentzia-irakasle espeziala dauka, zuen tutorea; bere lana, batez ere, gurekin ikasteko baldintza hobereenetan egon zaitezten lortzea da; ikasitakoaren segimenduz arduratzen da gainerako irakasleekin koordinatuz, zuen ikasketak bideratzen ditu... Aholkularirik hobereana duzue, ez izan zalantza izpirik, zuen musika-lana bide egokirik eramateko. Zuetako batzuk berarekin hitz egin duzue dagoeneko, datorren ikastuteari begira zertan komeni zaizuen matrikulatzea jakiteko...

Tutoreek asteroko ordutegia dute zuekin hitz egiteko. Berarekin hitz egiteak, elkar ezaquiten eta geure lana eraginkorrago izaten asko laguntzen du. Ez zaitezte azken ordura arte zain egon.

IKASLEAREN DEKALOGOA

Guztiok "astirik ez"aren garaian bizi gara. Baina egia da noizbait, antolamendu apur batekin, lanak lehenago egiten direla eta hain interesgarri egiten zaizkigun eta hain atsegín ditugun beste jaerdueretarako denbora ere lor dezakegula.

Zuetako batzuek ezaquiten dituzue. Beste batzuek, berriz, ez. Hona hemen zuen ikasketei eskainitako denbora probetxugarriagoa bihurtzeko zenbait aholku. Konta iezaguzue zuen esperientzia:

NOLA GOZATU MUSIKAZ

- ♪ Musika ikasteak, eguneroko praktika eskatzen du.
- ♪ Musika edozein sasoiari ikasi behar da (oporetan eta azterketa-garaian ere bai).
- ♪ Hobe da ikasketak eguneroko saio laburretan antolatzea, asteburuan nekatu arteko lana egitea baino.
- ♪ Beste jarduerak ondo antolatu: etxerako lanak, ikasketa eta beste betebeharrekoak. Horrela, denetarako denbora izango duzu.
- ♪ Musika praktikatzeko ordutegia finkatu.
- ♪ Leku lasai eta isila behar duzu, ez eragozteko eta eragotzia ez izateko.
- ♪ Berotzeko baliozkoak diren ariketa teknikoekin edo soinukoekin hasi.
- ♪ Arretaz irakurri partitura. Ez dira nota soilak. Sentitu musika. Abestu.
- ♪ Dagoeneko musika-tresna jotzen baduzu, ez jo beti lana oso-osorik. Zati bat hartu eta arazo teknikoak, digitazioa... landu. Zalantzak idatzi eta irakasleari azaldu.
- ♪ Zure denboraren zati bat kontzertuetara joateko eta musika entzuteko erabili. Entzunez, asko ikasiko duzu.
- ♪ Arretaz entzun zeure burua: erritmoa, afinazioa, fraseatzea eta soinua kalitatea zaindu.
- ♪ Zentzuzko ikasketak, denbora eta errepikapen asko aurrezuko dizu.

Hileko egutegia

Maiatza

a	a	a	o	o	l	i
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

■ **Jai-egunak**

■ **Eskolaren jarduerak**

■ **Jarduerak jai-egunetan**

Agenda Maiatza

Maiatzak 2: Gitarra-ikasleen erreztaldia; 18:30ean, Musika Eskolako entzunaretoan.

Maiatzak 9: Piano-ikasleen erreztaldia; 18:30ean, Musika Eskolako entzunaretoan.

Maiatzak 13: Saxofoi eta klarinete-ikasleen erreztaldia; 18:30ean, Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzak 14: Piano-ikasleen erreztaldia; 18:00etan, Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzak 22: Haize-metaleko ikasleen erreztaldia; 19:00etan, Musika Eskolako entzunaretoan.

Maiatzak 23: Kontrabaxu-ikasleen erreztaldia; 18:30ean, Musika Eskolako entzunaretoan.

Maiatzak 27: Biolin eta biola-ikasleen erreztaldia; 18:30ean, Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzak 28: Piano-ikasleen erreztaldia; 18:00etan, Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzak 29: Piano-ikasleen erreztaldia; 18:00etan, Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzak 29: Biolontxelo-ikasleen erreztaldia; 19:00etan, Musika Eskolako entzunaretoan.

Maiatzak 30: Musikoterapia-ikasleen erreztaldia; 18:30ean, Musika Eskolako entzunaretoan.